

Jean Baptiste Landaburu
Donibane Garazi, Nafarroa Beherea
(1874)

Aurkibidea

Biografia

Jean-Baptiste LANDABOURE Donibane Garazin sortu zen 1874ko irailaren 1ean, Uharteko karrikan zen Heigorri etxean. Aita anhautzar saltzailea zen; ama, aldiz, Izurako jostuna. 1913. urtean Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak jasotako grabaketa da honakoa. 39 urte zituen grabaketa egin zitzaionean. Botikaria zen. Euskalkia: ekialdeko behe-nafarrera.

- Diskoaren erreferentzia: 2.191

Zintak

DGA-001

- **Proiektua:** Rudolf Trebitsch-en euskal grabazioak (1913)
- **Elkarrizketatzailea(k):** Trebitsch, Rudolf
- **Data:** 1913-07-28
- **Iraupena:** 3 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea

- **Emalea:** OAW

Pasarteak

1. Donapaleuko pilota-partida izugarria

- **Erref:** DGA-001/001
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:00

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

<p>Donapaleuko herrian izandako pilota-partida bat kontatzen du. 50 urte lehenago bost lapurtar bost baxenabartarren kontra aritu ziren. Bataila izugarria izan zela dio. 40-50 kilometrotara bizi zen jendea oinez hurbil zen baxenabartarrek irabazitako partida ikustera. Mende hartan ez omen zen horrenbeste jende batu partida baterako.</p>

Transkripzioa

Diela berroita hamar urte pilota partidaat errabotian izantzen ahatziko eztena, Donapaleuko herrian, bost lapurtar hobeena bost baxenaartarren kontra: bataila izantzen izugarria; partida hasiik goizeko hamar oonetan, hamekara joko berdinduik eguerditan berriz lothu zien hiru oonetan. Atsa jintzenian oono etzen akaatia, jujiak bilduik berriz hitz artu zien bihaamun goizeko eta azkenian lapurtarrek benzitu ziuzten baxenaartarrak. Mende hartan ez omen dute ikusi hainbeste jende partida'atian. Bazien berroi, berroita hamar kilometretatik jini hunez partida horren ikusteat.

2. Istiluak gendarmekin

- **Erref:** DGA-001/002
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:01:00. **Bukatu:** 00:02:02

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

<p>1848. urtean Donibane Garaziko merkatuan gendarmek bi desertore atxilo hartzera joandakoak sortutako istiluak kontatzen ditu. Jende pilo batek haiek askatzea eskatzen zuen eta laborariak euren makilak astintzen hasi ziren.</p>

Transkripzioa

Mila zortzi ehun eta berroita zortzian izantzen Donianeko merkatian nahasmendu haundi bat. Bi jandarmek arrastatu ziuzten bi desertur jatsiarrak. Jandarmek altxatzen ziuztelaik, Loilakatek oihu intzien: "enekin, gizonak! gue adiskidiak altxatzen tiuzte. Guazen launtzeat!". Ordian berian merkhatu guzia altxatu zen, Loilakat aintzinian bere makila eskian, hausten ziuztela bidian hatzeman guztiak. Azkenian Michel Renaud gure zenaturra bere xarpa soinian athea zen plazaat eta oro eztiazi. Bena ondoko egunak hitsak izantzien Loilakatendako; legiak azken hitza ukantzien, Loilakaten etxaldia salduikan miserian hiltzen gue gizona.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com